

Indarkeriaz zenbait irizpide etiko

Jose Maria Setien*

Sarrera

Indarkeriaren gaiari buruz, eta ikuspegi etikotik bereziki, gogoeta batzuk egiteko eskatu didate, gure herrian bizi dugun errealitatean begirada jarritz. Hainbeste irrikatzen dugun baketzea lortzeko eragozpen nagusietakotzat jotzen da indarkeria. Bakearen zerbitzurako ekarpen izan daiteke, beraz, gai hau sakondu eta argitzea. Batik bat, argitzapen etiko zuzen bat bilatuz aztertzen badugu eta argitzapen horretarako elkarbizitza sozialaren kontzeptu pertsonalista batez baliatzen bagara. Uste dugu, aukera hau leial zaiela Jesusen Ebanjelioko funtsezko eskakizunei eta Jainko Aitak gizaki bakoitzari dion maitasunari, Ebanjelioko askapen-mezuak agertzen digunaren arabera.

Indarkeriarekiko kristau-jarrera sinplea, erabatekoa eta zalantzarik gabea dela irudi lekiguke, batez ere indarkeria terrorismo-fenomenoarekin identifikatzen denean. *Bakeari, bai. Indarkeriari, ez.* Indarkeri fenomenoak hartu dituen dimentsio internazionalak direla medio, baieztapen hauek are kementsuago hartzen dira ontzat, ideia mailan ez ezik, berezko sentimenduen mailan ere bai, pitzaturik gabeko operatibitate eta eraginkortasun-exijentziaz gainera. Argi dago, beraz, gogoeta hauen helburua ez daitekeela izan, besterik gabe, hiritar gehienek, guztiek ez bada, bere egiten dutena azpimarratzea. Auzia beste gisa batera ere planteatu daiteke. Printzipio horiek baietsitatzat emanik ere, geure buruari galdetu behar diogu ea printzipio horiek modu eraginkorre-

* Donostiako Gotzain emeritua

an aplikarazten nola lagun dezakegun guztiok, bakea egiaztatzeko laguntza gehiago eta hobe eskainiz. Hortik dator, hain zuzen, bizi garen tokian eta unean egoki kokatzen saiatu beharra.

1. Gaiaren konplexutasuna. Argibide batzuen premia

Horretarako, esku artean dugun gaiaren konplexutasuna onartuz hasi beharrean gara. Ez da gai erraza, eta konplexutasun hori argitzeko ahalegina ez bedi har “morokilari bueltak ematea” eta denbora-pasa huts bezala. Are gutxiago, gizarteak indarkeriaren aurrean hartu behar duen jarrera eztabai-daezina ahultzeko modu gisa.

Gure artean hainbatetan esan ohi da “indarkeriazko kultura” batean murgilduak bizi omen garela eta ez omen garela horretaz asko ohartzen. Baina giro sozio-kultural hori hor egoteak ez du esan nahi, besterik gabe, baieztapen horrekin adierazi nahi dugun edukia buruz bat gatozenik. Ondorengo lerro hauetan, zera dugu helburu: indarkeria kultura hori gauzaten eta agerian jartzen duten errealitatez eta jokabide zehatzez mintzatzea. Hizpide dugun indarkeria hori zer den jakin behar dugu, argitzapen etiko bat emango badiogu.

Bestalde, sinpleegia bezain arriskutsua da indarkeria terrorismoarekin nahastea, indarkeria oro terrorismo-modu bat izango balitz bezala eta,

alderantziz, indarkeriaren egiazko adierazpentzat terrorismoa soilik hartu behar balitz bezala. Horrelako nahasketa arriskutsua izango litzateke. Terrorismo ez diren zenbait indarkeriaren inpunitatea onartzera eta, aldi berean, terrorismo ez diren zenbait indarkeria terrorismo gisa zigortzera eraman gintzake. Gainera, esamolde horiek modu ekibokoan erabiltzeak intentzio politikoak izan ditzake. Eta horrek oztopatu besterik ez luke egingo egiazko bake-tzearen prozesu politikoa.

Sarrera-lerro hauei amaiera eman aurretik, beste ohar argigarri hau egitea komeni da agian. Ez da ahaztu behar, gizabanakoen eta kolektiboen funtsezko eskubideen onarpena eta erabilera euskarri dituen demokrazia batean, demokrazia horrek berezko dituen libertateak onartzen badira, helburu ekonomiko eta politiko desberdinak eta are kontra-jarriak agertzen direla nahitaez. Helburu desberdinak, hain zuzen ere, batzuk eta besteak interes desberdinak justiziaz lortzen legitimoki ahalegin daitezkeelako. Hortik tirabirak eta are liskarrak sortzen dira, eta normaltzat eta gizarte libre eta kreatibo baten dinamikan berezko-tzat eman behar dira horiek. Beraz, positiboki balora daitezke, justiziar eta, ondorioz, bake sozialari dagozkion helburu berriak lortzeko bide gisa. Erratua izango litzateke, tirabira horiek gizarte indarkerizale baten ezaugarri eta adierazpen bezala jotzea. Eta ez bekit uler, tirabira horiek ere benetako indarkeria

–hitz honi emango diogun zentzuan–
bilaka daitezkeela ukatzen dudarik.

2. Zer ulertzen dut indarkeriaz?

Gaiaren muin-muinaren azterketan sartuak gara horrenbestez. Gabiltzan testuinguruan, zer esan nahi dugu indarkeriaz hitz egitean?

Gure artean indarkeria hitzak konotazio politiko ukazina du, hitzak sarritan duen edo behintzat leporatzen zaion eduki politikoagatik beragatik hain zuzen ere. Indarkeriaren beste adierazpen ez-politikoez gain, indarkeria politikoak ere badira, noski, berez hala direlako edo sorreran dituzten motibazioengatik. Baina beste kontua da, indarkeria hitzaren kontzeptuarekin berarekin eta erabilerarekin egiten den manipulazio politikoa. Indarkeriaren kontzeptua bera, beronen edukia eta balorazioa, interes eta motibazio politiko ezberdinak eta are kontrajarriak oinarri harturik definitzean datza manipulazioa. Orduan, zerbait indarkeria izango da ala ez, segun eta zein erabilera politiko ematen zaion. Horrela ezinezko da denek onarturiko mintzaira bat bera izatea, eta indarkeria zehatz batzuk, politikoak bereziki, aipatzean elkar ulertzea. Gogoetan aurrera goazen heinean ikusiko dugu argiago.

a) Indarraren erabilera...

“Biolentzia” hitzak, jatorrian, indarraz baliatzea, hau da, indarra erabiltzea, adierazten du. Lehen hurbilketa

honetatik begiratuta, hitz horren edukia errealitate neutroa, are ona, izango litzateke; indarraz baliatuz bakarrik lor daitezkeen giza helburuak lortzea posible egiten duen medio bat adieraziko luke. Indar zehatz horren kalifikazio etikoa, indarra bera ez den zerbaitetan bilatu beharko litzateke, eta kasu baikoitzean egingo litzatekeen indarraren erabileraren arabera hain zuzen. “*Vim vi repellere omnia iura permittunt*” (“Zilegi da **indarraz** [vi] baliatzea, erasoan datorkigun **indarkeria** [vim] gugandik urruntzeko”), hain aipatua den erromatarren printzipioak agerian jartzen du, hitz berari esanahi bikoitza eman ahal zaiola, hitzetik kanpo dagoen zerbaitegatik, hau da, hitz horretaz baliatzean egiten den hitzaren erabileragatik.

Espainiar politiko batek baieztatu zuen behin, Estatuak zuela, bere subiranotasunari esker, indarkeria erabiltzeko monopolioa. Arbuio nabarmena bereganatu zuen baieztapen horrek. Baieztapenak eman zezakeen aditzera inplizituki, eta zenbaitek horrela interpretatu nahi izan zuen, Estatuak egingdako indarraren erabilera gaiztoa ere, hau da, bidezkoa ez den indarra eta, ondorioz, indarkeria zilegi dela.

Argigarri izan daiteke, euskaran ez dela horrelako nahasketarik gertatzen ohartaraztea. *Indarkeria* hitzak, indarraren erabilerari halako zentzu peioratibo bat eransten dio. *Indarra*, berez

ezinbestean gaiztoa ez izanik ere, hel daiteke izatera, eta horrela *indarkeria* gaitzesgarri bihurtu.

Nolanahi ere, indarkeria baztertuz bake-bideak aurkitzen saiatzen den elkarbizitza sozialarentzat arriskutsua da hitzen adiera-nahastea, agian interesatua, hau da: indarkeria kalifikatibo bera ematea bai “indarkeriazko” indarrez eginiko eraso bidegabeari eta bai indarraren erabilera justifikatuz erasoaren aurka egiteari. Ez dago esaterik, bata eta bestea era berean direnik *indarkeria*. Alabaina, indarkeriazko eraso bidegabe baten aurka erabiltzen den eta berez bidezko den indarra ere bilaka daiteke *indarkeria* gaitzesgarri, eta posibilitate hori ez da derrigor baztertu behar.

b) ... bidegabekoa

Hortxe ageri da funtsezko arazoa: zer da indarraren erabilera *indarkeria* bihurtzen duen *plus* hori? Erantzuna, lehen une batean, erraza da eta horri eutsi behar diogu oraingoz. Etika alde-tik, indarraren erabilera onari indarraren erabilera “bidezkoa” deitzen badiogu, indarraren erabilera gaiztoari “ez-bidezkoa” deitu beharko diogu. Garrantzi handia du, indarkeriak injustiziarekin duen jatorriko eta sustraiko lotura hori gure artean azpimarratzeak. Indarkeriaren erro-erroko inmoralitatea, berezkoa duen injustizian kokatu behar da. Ez da aski, indarkeria gaitz tamalgarria dela esatea. Injustizia dela

gehitu behar da, eta injustiziaren ikuspuntutik behar da analizatu.

Justizia –balio abstraktu gisa– pertsonen eskubideak maila indibidualean nahiz komunitarioan onartuz bakarrik egiazta daitekeela irizterakoan hain sentibera dirudien gizarte honek era berean jabetu behar luke, pertsonen nahiz kolektiboaren eskubideak, askotan eskubiderik funtsezkoenak, urratzean datzala indarkeriaren injustizia. Bidegabea delako da indarkeria etikoki txarra, eta pertsonen eskubideak ukatzen dituelako da bidegabea.

Horregatik da elkarbizitza sozio-politiko hain larria, alde batetik giza eskubideen babesa, justiziaz zor dena, jo eta ke defenditzen denean, eta bestetik indarkeriaren, hau da, bidegabeko indarraren erabilera giza eskubideen urraketa berekin daramaten bidegabekeriak legitimatzen edo behintzat toleratzen direnean.

3. Indarkeria eta boterea

Hemendik, sinplea eta begi-bistakoa dirudien ondorioa atera behar du. Halaxe delako atera behar da, hain zuzen, argitara. Indarkeriaren eta boterearen, edozein botereren, artean derri-gorrez dagoen loturaz ari naiz. Boteredunak bakarrik du indarkerigile izateko ahalmena. Are gehiago, zenbat eta handiagoa den boterea, hainbat handi-goa izango da, halaber, indarkerigile

izateko posibilitatea. Eta honek garrantzi politiko sozial ikaragarriko arazoa planteatzen du. Hots, gizarteak botere hori kontrolatu ahal izateko mekanismo eraginkorrek eskura eduki beharra. Arrazoimenak eta, azken batean, arrazoimen etikoak inspiraturiko mekanismoak, alegia.

Horregatik, oso aberasgarria da gizartean jokoan jartzen diren botere-mota ezberdinak –politikoak ez ezik, soziologikoak ere– eta berauek jokoan jartzen dituzten mekanismo bereziak aztertzea, horrela indarkeria-mota ezberdinak hobeto ikusteko. Ez da hori gogoeta hauen zuzeneko helburua. Baina hauetan zerbait faltako litzateke, zera aipatu bederen egingo ez bagenu: Estatuaren eta gizarteko talde politiko armatuen botere-erabilera lotua dagoen indarkeria politikoaren ondoan, badela beste indarkeria bat ere, botere “faktiko” deituei, botere ekonomiko eta mediatikoei loturik dagoena.

Gure artean indarkeria politikoaren gaia batez ere planteatu dugunez gero, ezinbestean aipatu behar ditugu talde armatuek eginiko indarkeriak, pertsonen eskubideen kontra zuzenean doazenak, hala nola: hilketak, bahiketak, estortsioak, ondasunen kontrako atentatuak... Baina ez dira indarkeriatzat jo gabe utzi behar, Estatuak bere botere-erabileran giza eskubideen kontra eginitako ekintzak, inspirazio demokratikoa duten zuzenbidezko Estatuetan behar

den botere-banaketa eta honek berezko dituen berezitasunak kontuan harturik.

Beren eraketa juridiko-politikoan demokrazia konstituzionalen ildo bereziak jarraitzen dituzten Estatuak direnean, Estatuaren indarkeria-motak botere exekutibo delakoaren jardueran izaten dira batik bat, hau da, Gobernuaren eta beronen botere-adarren jardueran, beren esku duten subiranotasuna jokoan jartzen dutenean (torturak eta poliziaren tratu txarrak, presoek esku-bideen urraketak...). Hala ere, oraindik oraingo zenbait esperientziak frogatzen digu, indarkeria izena merezi duten giza eskubide indibidual eta kolektiboen kontrako jarduerak gertatzen direla justizia-auzitegien esku dauden Estatu-botereetan ere (interes eta helburu politikoz emandako epaiak...), eta Estatuaren funtzio legegilean bertan ere bai (helburu errepresibo nabarmena daramaten lege bereziak...). Beraz, badu bere oinarria “Estatu-indarkeria” badela esateak, organismo publikoen eskutik gertatzen den giza eskubideen kontrako jarduera, alegia.

4. Indarkeriaren kultura, injustizia eta kaltea

Egoki izan daiteke, gure artean sarritan planteatzen den gai bat hemen kokatzea. Indarkeria-mota guztiak berdinak ote diren galdetu ohi da, beste zehaztapen edo definiziorik eman gabe. Galderari ematen zaion esanahiak

nahitaez baldintzatuko du eman beharreko erantzuna ere. Eta honek jada agerian jartzen du, besterik gabe, baduela justifikaziorik indarkeria-moten ustezko ezberdintasunaz planteaturiko galdera honek. Halere, kontuan izan behar dugu zera: indarkeria zehatz aipatzen dugunean, indarkeri mota guztiei komun zaien zerbait ari garela adierazten. Boterearen indar-erabilera soilari gehitzen zaion zerbait komun hori, hain zuzen, zera da: eskubide pertsonal edo kolektiboren bat urratzean datzan injustizia. Horregatik, ikuspegi zehatz honetatik, indarkeriazko kulturaz mintzatzeak esan nahi beharko luke injustiziazko kulturaz hitz egitea. Eta horrek badu bere garrantzia eta zer pentsa handia ematen du.

Egiten dugun baieztapenaren larriak behartzen gaitu, hain zuzen, biak ongi bereiztera: norberaren eskubideak baliatzeak datorkeen *kaltea*, eta indarkeriaren *injustizia*. Bere eskubideaz baliatzen denak erakar diezaike kaltea besteei. Kalte honek, benetakoa izanik ere, ez dauka halabeharrez bidegabekoa zertan izanik. Bidegabekoa balitz, ez litzateke bere eskubideaz baliatuko. Hori gertatzen da, adibidez, langileek greba-eskubidea baliatzen dutenean, praktika horrek kalteak sorraraz baititzake enpresatan eta are gizartean. Kalteak kalte, horrek esan nahi du, langile horiek berez bidezkoa den boterea erabiltzen dutela; bidezkoa, alegia, bizi dugun sistema sozio-ekonomiko neo-

kapitalistaren dinamikan. Errore litzateke, greba-eskubideaz baliatze hutsa indarkeria dela esatea. Alabaina, greba-eskubidearen erabilera ere, praktika konkretuan, izan daiteke bidegabekoa. Horrela gertatzen da, esate baterako, “pikete” direlakoan kasuan, beste langileek greban parte hartzeko ala ez hartzeko duten eskubidea edo enpresek bere lan-jarduera normalari eusteko duten eskubidea bortxatu egiten baitute.

Dudarik gabe, kasu hauetan eta beste honelakoetan, erabat premiazkoa da bereizketa zuhurra egitea, injustiziarik ba ote den ala ez ondo ikusteko, hortik atera behar diren ondorio praktikoko guztiak ateraz, ekintza konkretu bat eta ekintza edo jokabide konkretu bat indarkeria ote den ala ez erabakitzerakoan.

5. Bidezko eta bidegabekoari buruz akordio soziala

Orain arte esandako horrek guztiak argia dirudi, eta nekez eztabaidatzekoa. Baina esan behar da, halaber, hori guztia argigarri izanik ere, horrekin ez garelara heldu, zoritxarrez, indarkeria ezabatzeke eta horrela bakerantz joateko aurki dezakegun oztoporik handiena planteatzera. Indarkeriak, indarkeria izateko, injustiziaren nota berekin eduki behar duela denok onartuta ere, ezingo dugu aurrerabide handirik egin, baldin eta boterea duten guztiak bat ez badatoz, bidezko edo bidegabeko zer

jo behar den erabakitzerakoan. Bestela esanda, gauzatu beharreko justizia eta baztertu beharreko injustizia zer den erabakitzeko, gizarte mailan ikuskera bateratu bat ez badago.

Bat ez bagatoz, zer eman behar den bidezkoztat edo bidegabetzat, zer eskatzen duen justiziak eta zer debekatzeko injustiziak, nekez etorriko gara bat indarkeria definitzean eta berau ezabatzeko borroka eraginkorra egitean. Hau ez da auzi teoriko edo abstraktu hutsa. Ikus dezagun.

Araza hau bi eratarata planteatu daiteke. Baina, azken batean, biek toki bereira garamatzate. Batzuek sostengatzen dutenez, badaude eskubide kolektibo hain inportanteak (adibidez, Euskadiren independentzia edo burujabetasuna eta, ondorioz, autodeterminaziorako duen eskubide absolutua baliatzea), non, eskubide kolektibo horiek aitortzen ez diren bitartean, gizabanakoaren eskubide pertsonalak haien mende jarri behar baitira, indarrak gabe uzteraino edo beraien existentzia ukatzeraino mende jarri ere, hala behar izanez gero. Eta gauza bera gerta daiteke alderantzizko ikuspegitik, kosta ahala kosta espainiar Estatu eta Nazioa baietsiz eta defendituz.

“Kosta ahala kosta” honek jartzen du agerian gorago aipatu dudan beste ikuspegi hori. Ikuspegi horretan, “efikazia” eta “etekina” bihurtzen dira

printzipio absolutu eta erabakigarri, zer den justiziaren araberrako eta, beraz, bidezko, erabakitzeko. Eta printzipio horren aplikazioak eragin dezakeen kaltea ez da orduan injustizia bihurtzen. Gaitz “tamalgarri” huts bihurtzen da, eta ez indarkeria “arbuigarri”, hauxe den arren boterearen edo indarraren bidegabeko erabilerari dagokion hitza.

Erraz ikus daitekeenez, bi planteamendu hauen ikuspegian, kontua ez da bidegabeko indarkeria legitimatzea edo ontzat ematea. Araza finagoa da eta, ustez behintzat, onargarriagoa. Indarra erabiltzeko modu horri bidegabekotasuna kentzea da kontua. Horretarako, ongi absolutu bihurturiko kausa edo helburu baten zerbitzura jartzen da indarraren erabilera, giza harreman soiletan errealitate absolutuez mintza daitekeen neurrian behinik behin. Edo bestela, halako lehentasuna ematen zaie, non edozein kasutan beste giza ondasun guztiek, baita pertsonaren funtsezko eskubideek ere, haien mende gelditu behar baitute, suntsitzeraino edo ezabatzeraino ere bai agian.

Ez da alferrikako lana, gatazka “ideologiko” hau gainditzeko eta, inportanteagoa dena, bakea lortzeko, gauzak errealismoz, diren bezala eta borondate zintzo eta eraginkorrez planteatzea. Horretarako, beste gauza guztien gainetik jarri behar da bakea, giza biziaren balioaren eta funtsezko esku-

bideen erabateko onarpenaren adierazpen den bakea, eta bakea defenditzeko ezinbestekoa da funtsezko eskubide horiek, bai maila indibidualean eta bai maila kolektiboan, eraginkorki baiestea eta babestea. Eta hori, ustez absolutu diren errealitateen gainetik, pertsonari, pertsona bakoitzari, aitortu behar diogun balioa suntsitzen bada ezingo baitute absolutu horiek balio handirik eduki. Eta ez da ahaztu behar, oinarriko pibot honetan finkatu behar dela etika guztiz gizatiarra eta, ondorioz, benetan kristaua egiteko edozein ahalegin.

6. Botere politikoaren bidezko erabilera

Egiten ari garen analisitik ez da ondorio gisa atera behar, ustezko balio batzuk helburu kontrajarrien zerbitzura aurrez aurre jartzen direnean, indarkeriaren injustizia nahitaezkoa denik, modu erangikorrean jokatu ahal izateko. Eta orobat ez da pentsatu behar, ustez beharrezkoa den indarkeria horren arazoa, indarkeriarik indartsuena kontrako indarkeria ahulagoaren gainetik ezarri bakarrik konpondu behar denik. Hau da, azken batean, bi injustiziak aurrez aurre jarriz, eta indarkeriarik indartsuena garaile ateratzen utziz. Honek horrela izan behar balu, gutxi egingo genukeen aurrera justizian oinarritutako bakegintzaren bidean eta *bekatuaren injustiziatik libratzen gaituela* hots egiten digun itxaropen ebanjelikoaren bidean.

Harik eta gizadia, Estatu-boterearen indarra erabili beharrik gabeko elkarbizitza “politikorako” moduak bideratzeko gai izango den arte, posible da pentsatzea botere horren erabile-ra “legitimoa” ez ezik “bidezkoa” ere izan daitekeela. Horrela ez balitz, boterearen erabilera eta erabiltzaileak aldatzen saiatuko litzatekeen gizartearen ahalegin guztiak alferrikakoak lirateke, boterearen erabilera eta erabiltzaileak halabeharrez bidegabekoak izango bailirateke. Posible behar du izan indarkeriazko botere bidegabeen aurka botere legitimo bidezkoen bidez borroka egitea, botereok justiziari dagozkion mugetan erabiliz. Inportantea da hori pentsatzea eta konbentzimendu horrekin jokatzera, zeren eta, bestela, ezarritako botereen bidegabeko indarkeria halabeharrez “justifikatzen” ariko baikinateke, gizartea indarkeriazko etengabeko borroka-zelai bihurtuz.

7. Gizarte normalizatu bateko bakea

Nire ustez, “elkarren kontra jarritako justizien” auzia beste era batean planteatu behar da, batez ere gure artean eta goian aurkeztu dugun arazoari dagokionean, hau da, justizia eta beronen exijentziak ulertzeko modu ezberdinei buruz dagokionean. Planteatu behar da ea, politikoki normalizatua den gizarte batean, benetako bakea lortzeko biderik egokiena edo bide bakarra ote den, botere legitimoaren ekintza

errepresibo eraginkorraren bidez indarkeria ezabatzea. Botere legitimo hori bidezko moduan erabiltzen dela suposatuz, jakina. Horixe litzateke, hain zuzen, indarkeria medio “polizial” soilen bidez ezabatu behar dela esatean esan nahi izaten dena; hau da, edozein “kontsensu”-kontu alde batera utziz, baita kontsentsu politikoa ere.

Indarkeria ezabatzeko modu hori egiazki posible den hipotesian planteatzen da, noski, arazo hori. Baita ETAn ematen diren bezalako ezaugarri politiko-sozialak dituzten indarkeria terroristen kasuan ere. Ezin da kontuan hartu gabe utzi, kasu honetan indarkeria justifikatu nahian aipatzen den kausa politikoak baduela berez, indarkeriarekiko duen loturaz aparte, ukaezineko sustrai sozial bat. Eta halako sustraia, non ez baitago pentsatzerik, ETA ezabatzearekin besterik gabe desagertuko denik.

Aitzitik, pentsa daiteke, euskal hiritargoaren parte esanguratsu batean bizirik jarraituko lukeela sentimendu batek, gutxi-asko justifikatuak baina errealak: ekintza terroristen indarkeria deuseztuz ustez “baketu” den gizartearen oraindik bizirik irauten bide duela halako indarkeria “ezarri” eta nolabait instituzionalizatu batek. Eta horrek ez luke utziko, euskal gizarteak gizarte juridikoki eta politikoki “normalizatu” bati dagokion oreka lor dezan. Aitzitik, berari arrotz zaion botere baten erabile-

rak inposaturiko elkarbizitza gisa begiratuko luke, jatorriz dagozkion askatasun politikorako eskubide kolektiboak aintzat hartzen ez dituen edo ukatu egiten dituen eta, ondorioz, “indarkeria” deitzea mereziko lukeen elkarbizitza bezala.

Bere “normalizazio” politikoa lortu duelako erabat baketu den euskal herri baten ametsak, ordea, bestelako oinarri sendo batean finkatua egon beharko luke: elkarbizitza politiko-instituzionalaren moduari buruzko kontsentsu zabal, arrazoizko eta onartu batean. Elkarbizitza-modu horrek, nahiz eta gizarte pluralista batean izan ohi diren talde eta ideologia guztien aspirazioak osoki ez bete, denei zor zaien justiziaren exigentzia komun bezala onartua izan beharko luke, eta guztiek posible izan beharko lukete beste helburu osoagoetara aspiratzea, norberaren proiektu politikoaren arabera eta pluraltasuna ezaugarri duen gizarte bati zor zaion errespetuan.

Konklusioa

Gure gizarte hau gero eta “indarkeria” gutxiagorekin nahi dugun guztiok geure buruari galdetu behar diogu, esparru politiko-sozial egokietan elkarriketaturiko kontsentsuen bidea ez ote den izango arrazoizko soluzioa lortzera eramango gaituen bidea, alferrikako lantutako alde batera utziz, hainbat aldiz errepikatu dugun hau esate baterako: “nazkatuta gaude indarke-

riaz” Honelako adierazpenak hutsalak izan ez daitezen, agian hau ere galdetu beharko diogu geure buruari: *Zeri uko egiteko nago prest, indarkeriguneak eta indarkeri adierazpenak etengabe*

berri ez daitezen? Eta hori guztia, ez bakarrik doakotasun eskuzabal baten fruitu bezala, baizik eta gizarteak esku-bidezkoa duen justiziaren exijentzia bezala.

Itzultzailea: Jose Mari Regillaga